

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

2/2018 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 17koa, aldutzen duena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, zenbait loteria eta apustutan lortutako sarien gaineko karga bereziari dagokionez.

Estatuko araudiaren arabera, 2013ko urtarrilaren 1az geroztik estatuaren, autonomia erkidegoen, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren, Espainiako Gurutze Gorriaren eta antzeko entitate europarren loterietako sariak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren gaineko zergari lotuta daude karga berezi baten bitartez.

Hasiera batean, karga berezi hori abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen gehigarriaren bidez sartu zen Gipuzkoako errenta zergaren foru araudian, eta, gaur egun, bi xedapen hauek arautzen dute: urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena (hamazortzigarren xedapen gehigarriaren), eta abenduaren 10eko 16/2014 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena (seigarren xedapen gehigarriaren).

Karga bereziaren ezaugarria da haren sortzapena lortutako saria ordaintzen den ulean gertatzen dela, eta 100eko 20ko zerga tasa finkoa duela. Orobat, sariari 100eko 20ko atxikipena edo kontura sarrera aplikatzen dio ordaintzaileak, eta, horren ondorioz, zergadunak ez du zertan autoliquidaziorik aurkeztu. Gainera, sariak karga berezitik salbuetsita daude, haien zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo txikiagoa denean, eta, 2.500 eurotik gorako sarien kasuan, zenbateko horretatik gora dagoen zatia bakarrik zergapetzen da.

Bestalde, Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, ezartzen du aipatutako karga bereziaren atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko garaian, foru aldundiek lurralde erkidean aplikatzen diren tasa berberak aplikatu behar dituztela.

Estatuko 2018. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, berriki onartuak, aurrekusi du salbuespen hori apurka-apurka gehitzea, eta, nahiz eta printzipioz 40.000 eurotan finkatu duen salbuesitako zenbatekoa, ezarri duen araubide iragankorrek dio legea indarrean jarri eta 2018ko abenduaren 31ra bitartean 10.000 eurokoa izango dela salbuesitako zenbatekoa, eta 2019. urtean 20.000 eurokoa.

Hori aintzat hartuta, beharrezko gertatzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia aldatzea aurreko paragrafoan aipatutako salbuespena presazko bidetik sartzeko, eta,aldi berean, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia zeharka egokitu beha-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Decreto Foral-Norma 2/2018, de 17 de julio, por el que se modifica la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en lo relativo al gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas.

A partir del 1 de enero de 2013 la normativa estatal estableció la sujeción, a través de un gravamen especial, de los premios de las loterías del Estado, Comunidades Autónomas, Organización Nacional de Ciegos Españoles, Cruz Roja Española y entidades análogas de carácter europeo, a los impuestos sobre la renta de las personas físicas y de no residentes sin establecimiento permanente.

Dicho gravamen especial, que originalmente se incorporó a la normativa foral del impuesto sobre la renta de las personas físicas como disposición adicional vigésimo sexta de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, se encuentra actualmente regulado en la disposición adicional decimooctava de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en la disposición adicional sexta de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

El gravamen especial se caracteriza por su devengo en el momento en que se satisfaga o abone el premio obtenido, y su tipo impositivo se fija en el 20 por 100. Asimismo, el premio está sometido a una retención o ingreso a cuenta del 20 por 100 a efectuar por su pagador, el cual tiene carácter liberatorio y exime al contribuyente de la obligación de presentar autoliquidación. Además, están exentos del gravamen especial los premios cuyo importe íntegro sea igual o inferior a 2.500 euros, y aquellos cuyo importe íntegro sea superior a 2.500 euros se someten a tributación respecto de la parte de los mismos que exceda de dicho importe.

Por otra parte, el Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece que en la exacción de las retenciones e ingresos a cuenta correspondientes al citado gravamen especial, las Diputaciones Forales aplicarán idénticos tipos a los de territorio común.

La Ley 6/2018, de 3 de julio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2018 aprobada recientemente establece el incremento gradual de dicha exención, de manera que, si bien fija el importe de la exención en 40.000 euros, establece un régimen transitorio en virtud del cual la exención se fija en 10.000 euros desde la entrada en vigor de dicha ley y hasta 31 de diciembre de 2018 y en 20.000 euros para el periodo impositivo 2019.

Resulta necesario modificar la normativa del impuesto sobre la renta de las personas físicas, al objeto de establecer con carácter de urgencia la exención mencionada en el párrafo anterior y además adaptar indirectamente la normativa del impuesto sobre la renta de no residentes sin establecimiento

rra dago araudi horrek karga bereziaren salbuespenari dagokionez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru araura egiten duen igorpenagatik.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du presazko arrazoiak daudenean Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen berezi horiek foru dekretu-arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, baliozkotutako izateko.

Hortaz, foru dekretu-arau honen xedea da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia aldatzea aipatutako salbuespena presaz ezartzeko eta, horrela, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia aldatzea horretarako egokitzeko.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zenbait loteria eta apustutan lortutako sarien gaineko karga berezia aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoan:

Bat. Hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. aparta-tua honela geratzen da idatzita:

«2. Sarien zenbateko osoa 40.000 eurokoa edo txikiagoa denean, sariak karga berezitik salbuetsita egongo dira. Sarien zenbateko osoa 40.000 eurokoa baino handiagoa den kasuetan, zenbateko horretatik gora dagoen zatia zergapetuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da baldin eta loteriako dezimo, zatiki edo kupoiaren zenbatekoa, edo egindako apustuarena, gutxienez 0,50 eurokoa bada. Zenbatekoa 0,50 eurotik beherakoa denean, aurreko paragrafoan adierazitako gehienenekoen zenbateko salbuetsia proportzionalki murriztuko da.

Sariak titulartasun partekatua duenean, aurreko paragrafoetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia titularkideen artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.»

Bi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hogeita hamahirugarrena, eduki hau duena:

«Hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. Zenbait loteria eta apustutan lortutako sarien gaineko karga berezitik salbuesten den zenbatekoa 2018. eta 2019. urteetan.

2018ko uztailaren 5a baino lehen egindako jokoen sariak karga berezitik salbuetsita egongo dira foru arau honen hemezortzigarren xedapen gehigarriak 2. apartatuan ezartzen duen zenbatekoan (2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazkerari jarraituz).

2018ko uztailaren 5etik aurrera, zenbateko hori 10.000 eurokoa izango da 2018ko zergaldian egindako jokoetatik datozen sarietarako, eta 20.000 eurokoa 2019ko zergaldian egindakoetatik datozenetarako.»

Azken xedapena bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko uztailaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

permanente, por la remisión que en la misma se realiza a la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con la exención en el gravamen especial.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de urgencia, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de Decreto Foral-Norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

Así pues, el presente decreto foral-norma, modifica la normativa del impuesto sobre la renta de las personas físicas para establecer con carácter de urgencia la exención anteriormente mencionada, adaptando así la normativa del impuesto sobre la renta de no residentes sin establecimiento permanente a dicha modificación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. El apartado 2 de la disposición adicional decimoc-tava queda redactado en los siguientes términos:

«2. Estarán exentos del gravamen especial los premios cuyo importe íntegro sea igual o inferior a 40.000 euros. Los premios cuyo importe íntegro sea superior a 40.000 euros se someterán a tributación respecto de la parte de los mismos que exceda de dicho importe.

Lo dispuesto en el párrafo anterior será de aplicación siempre que la cuantía del décimo, fracción o cupón de lotería, o de la apuesta efectuada, sea de al menos 0,50 euros. En caso de que fuera inferior a 0,50 euros, la cuantía máxima exenta señalada en el párrafo anterior se reducirá de forma proporcional.

En el supuesto de que el premio fuera de titularidad compartida, la cuantía exenta prevista en los párrafos anteriores se prorrateará entre los cotitulares en función de la cuota que les corresponda.»

Dos. Se añade una disposición transitoria, la trigésimotercera, con el siguiente contenido:

«Disposición transitoria trigésimotercera. Cuantía exenta del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas en los ejercicios 2018 y 2019.

Los premios derivados de juegos celebrados con anterioridad al 5 de julio de 2018, estarán exentos del gravamen especial en la cuantía prevista en el apartado 2 de la disposición adicional decimoc-tava de esta norma foral en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2017.

Dicha cuantía será de 10.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2018 a partir del 5 de julio de 2018, y de 20.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2019.»

Disposición final única. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y surtirá efectos a partir del 5 de julio de 2018.

Donostia, 2018ko uztailaren 17a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(5254)

San Sebastián, a 17 de julio de 2018.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(5254)